

HEOko azterketa eredua – EUSKARA B2 – Idatzizko Bitartekotza

Institutuko Orientazio departamentuan lan egiten duzu eta Guraso Elkartearen eskaera bati erantzunez, zibersegurtasunaren gaia hizpide izanik, ikastetxeko gurasoei zenbait aholku bidaliko dizkiezu. Aholku horiek beherago ageri den artikulutik hartuko dituzu.

Idatz iezaiozu e-mail bat Interneten irakurri duzun ondoko artikulua aintzat hartuz. Aukeratu artikulua honetako informaziorik esanguratsuena.

Luzera: : 120-150 hitz

ZIBERSEGURTASUNA

Guraso agurgarriak:

Zuen kezka eta eskaerak jaso ditugu. Horrenbestez, institutuko Orientazio departamentuaren izenean, zenbait argibide eta aholku eman nahi dizkizuet...

Beste kezka edo zalantzaren bat izanez gero, ikastetxeko webgunean ireki berri dugun “ Zibersegurtasuna orain” atalean klikatu eta zuzenean gurekin jarriko zarete harremanetan.

Adeitasunez,

Aimar Bideluze (Ikastetxeko orientatzailea)

Ziberseguruak al gara?

2013. urtean, Edward Snowdenek Ameriketako Estatu Batuetako gobernuak mundu osoan egindako espioitza-lanen berri eman zuen egunkari ospetsuetan.

Amerikako Estatu Batuetako Inteligentzia Agentzia Zentralean eta NSAn egiten zuen lan ordura arte, eta bere aurkako atxilotzeko nazioarteko agindua indarrean dago gaur egun.



Albiste hau mundu guztian entzun zen, eta horrek hitz berri bat ekarri zuen gure hiztegiara: *zibersegurtasuna*. Kontzeptua zabala bada ere, oinarrian, Interneten gure datuak modu seguruan zabaltzea du helburu, baimenik ez duen inork ez erabiltzeko.

Teknologiaren garai honetan, enpresen kezka da zibersegurtasuna, baina baita erabiltzaileona ere. Sare sozialetan argazkiak eta datuak partekatzen ditugu, kreditu txartelarekin erosketak on-line egiten ditugu, posta elektronikoa informazioa jasotzen dugu...

“Zer neurri hartzen dituzu?”. Gai horren inguruan hitz egin dugu Eneritz Larrea, Arkaitz Perez eta Amaia Zabala gazteekin, baita David Cucalon informatikariarekin ere.

PASAHITZAK

Pertsona bakoitzak hainbat kontu eduki ditzake mundu birtualean, eta beste hainbeste pasahitz: posta elektronikoa, bankuko webgunean, sare sozialetan, erosketak egiten ditugun atarian... Googlek hizki larriak eta xeheak, ikurrak eta zenbakiak nahasten dituzten pasahitzak erabiltzea gomendatzen du, baina jaramonik egiten diogu?

Eneritzek eta Amaiak bi pasahitz-mota bereizten dituzte: “Bata kontu pertsonaletarako, eta, bestea, berriz, profesioaletarako”. Hala ere, biek argi dute hacker batek euren informazioa lortu nahiko balu, oso erraz egingo lukeela. Arkaitzek, berriz, hiru hilean behin, pasahitz guztiak aldatzen dituela aitortu digu.

WEBGUNEAK

Hainbeste webguneren artean, nola jakin zein den fidagarria eta zein ez? “Antibirusa eguneratuta edukitzea, https webguneetan nabigatzea, ezagutzen ez ditugun wifi-sareetan kontu handiz ibiltzea... Horiek dira nire gomendioak. Hala ere, zentzuduna izatea da garrantzitsuena”, esan digu David informatikariak. “Zergatik erantzungo zenioke bankuko kreditu-txartelaren gakoa eskatzen dizun mezu bati, posta elektronikoa bankuarekin loturarik ez badu eta akats ortografikoak baditu? Zentzuduna izatea da nire aholkua”. Eneritzek badu beste trikimailu bat: “Nik ezagutzen ditudan webguneak erabiltzen ditut, eta, baten bat ezagutzen ez badut, iruzkinak irakurtzen ditut, jende askok edo gutxi erabiltzen duen jakiteko. Irakurtzen dudanaren arabera, webgunean jarraitu edo alde egitea erabakitzen dut”.

SARE SOZIALAK

Facebook, Instagram, Twitter, WhatsApp... sare sozial asko ditugu, eta egunetik egunera berriak sortzen dira. Milioika izen, argazki eta datu ezkututzen dituzte, eta ia egunero handitzen dugu datu-base erraldoi hori. David informatikariari kezagarria iruditzen zaio gure datuak enpresa pribatu erraldoi horien esku uztea: “Duela gutxi, Cambridge Analytica aholkularitza-enpresak ateak itxi zituen Facebooketik modu irregularrean milioika estatubatuarren datu-pertsonalak eskuratu ondoren. Nik ez nituzke nire datuak edozein lekutan emango; izan ere, datu gehien dituen enpresa da jakintsuena, aberatsena eta boteretsuena XXI. mendean”.